

Alderdien samintasuna eta gaitzespenak

Buesaren eta ertzainaren familiekin bat egin dute buruzagi politikoeak

Erredakzioa / Donostia

Atentatua gertatu orduko hasi ziren alderdien erreakzioak. Euskal Herrian ordezkariak duten alderdiek gaitzespena eta samina kaleratu zituzten Buesaren eta haren bizkarzainaren hilketagatik. Herritarrek aukeratutako ordezkaria zela nabarmendu zuten buruzagi politikoeak eta hildakoen familiei euren dolumina azaldu zieten.

EAJ-KO EBBak Fernando Buesa eta Jorge Diez ertzainaren hilketaz hitz egitean «horrorea aipatzen du». Buegun legebiltzarkidea zela oroitarazteaz gain, EAEko lehendakariordea, Hezkuntza sailburua eta Arabako ahaldu nagusia ere izan zela azaldu zuen. «Horregatik basakeria bikoitza da: bere kontra eginikoa batetik, eta botoaren bitartez bere ordezkari gisa hautatu zuten arabarren kontrakoa bestetik».

Napar Buru Batzarrek ere gaitzetsi zuen atentatua. Giza eskubideekiko eta instituzioekiko errespetu eza dela nabarmendu zuen Jose Antonio Urbiolak. Araba Buru Batzarra ere beretsu mintzatu zen.

Eusko Alkartasunak lehenik eta behin gizakien eskubideei errespeturik ez izatea aipatu zuen, eta baita herritarren borondatearen errespetu eza. Euskal Herrian bakea eta normalizazioaren alde egiten ari diren esfortzurako kolpe handia izan dela dio. Jaurilaritzak norabide politikoen oinarriak argi

jarriko dituen itxaropena azaldu zuen EAK. «Gizarteak eskatzen duena da indarkeria behin betiko baztertzea, eta baita haren inguruko jarrera tolerantia eta anbiguoak». Rafa Larreina idazkariorde nagusiak esan zuen: «Lanean jarraitu beharra berresten du gertatutakoak, hau guztia amaitu eta indarkeria iraganeko zati bat izan dadin».

Carlos Iturgaitz EAEko PPko presidenteak hitz gogorak egin zituen atentatuaren ostean: «ETako lotsagabeek bizi izan dugun horrorea itzularazi gaituzte». Bat egiteko deia egin zuen Iturgaitzek eta HBri babes eman diotenak bidea ez dela hori konturatu eta atzera egingo duteneko itxaropena azaldu zuen. Buesa laguna zuela adierazi ostean minduta agertu zen. Carmelo Barriok «demokraziarako egun ikaragarria» izan zela azaldu zuen.

Nafarroako Iuren iritziz, ETak sistema demokratikoa iri ematen dion erantzuna da atzoko atentatua. Mobilizazioarako deia egiteaz gain



erreakzioak

- × **EBB** (EAJ): «Basakeria bikoitza da: batetik bere kontrakoa, eta bestetik botoaren bitartez ordezkari gisa hautatu zuten arabarren kontrakoa»
- × **Rafa Larreina** (EA): «Lanean jarraitu beharra berresten du gertatutakoak, hau guztia amaitu eta indarkeria iraganeko gauza izan dadin»
- × **Carlos Iturgaitz** (PP): «Bat eginik egon behar dugu, indarra izan, eta HBri eta ETari babes eman diotenak konturatu daitezela hori ez dela bidea»
- × **Felix Taberna** (IU): «Egin dakioken

oparirik hoberena datozen hauteskundeetan parte hartzea da, Buesa asko poztuko litzateke parte hartza handia balitz»

× **Juan Cruz Alli** (CDN): «Krimen guztiak dira berdinak, baina herritarren ordezkari baten hilketa izateak dimentsioa aldatzen du, sistema demokratikoaren kontrako atentatua baita gertatutakoa»

× **Pablo Mosquera** (UA): «Honek ezin du horrela jarraitu. Norbaitek gelditu behar du, eta autoritateek gelditzen ez badute herriak geldituko du»

datozen hauteskundeetan lan egiteko deia egin zuen. «Egin dakioken oparirik hoberena datozen hauteskundeetan parte hartzea da, Buesa asko poztuko litzateke» azaldu zuen Felix Taberna koordinatzaileak.

Jaiver Madrazo EB-Iuko koordinatzaileak herriaren borondatearen eta demokraziaren kontrako erasotzat jo zuen atentatua. «ETak herritarren ahotsa entzun behar du eta denborarik galdu gabe eskenatoki politikotik des-

gertu». Inpotentzia handia sentitzen zuela azaldu zuen EB-Iuko kideak.

CDN oinazea eta sumindura azaldu zuen. «Euren herriarekin konpromisoa zuten bi pertsonaren heriotza injustua da» zioen CDNren

Confebask •

«Erakundeek eta politikoei batasuna izan behar dute»

► «Indarkeriazko arrazoi-gabekeriaren xede bakarra gure gizarte asaldatuari samin eta heriotz gehiago eragitea da, eta horren azken agerpide hau sakonki deitoratu nahi dugu. Fernando Buesa sozialistak eta haren bizkarzainak jasan-dako atentatuaren aurrean, batasuna eskatu nahi diegu erakundeei eta politikoei».

ELA •

«Arduradun politikoen baten hilketa, are larriagoa da»

► «ELA sindikatuak bere gaitzespena, nahigabea eta amorrua eman nahi du ezagutzera Fernando Buesaren eta Jorge Diezen erailketaren aurrean. Arabarrek urteetan zehar haiek ordezkatzeko aukeratutako arduradun politikoen baten erailketak ETaren krimenetik harantzago doan larritasun eta dimentsio bat hartzen du».

UGT •

«Alderdi politikoei hausnartu beharra daukate»

► «Gure kide Fernando Buesa eta Jorge Diez ertzainaren erailketa sakonki gaitzesteaz gain, alderdi politikoei hausnarketarako deia egin gura diegu, nahikoa baita gu engainatzeaz. Hiltzen ari den etsai komun bat daukagu guztiok eta horrek argi uzten du egungo zatiketa politikoa ez duela inolako zentzurik».

CCOO •

«Erakundeek mobilizazioen buru izan behar dute»

► «Atentatua sakonki gaitzesteaz gain, indarkeriaren aurrean demokrazian batasunaren ordua eta ETari sobera dagoela esatekoa dela deritzogu, eta ez demokrazia banatzen gaituzten frontea. Erakundeek, eta Lehendakariak, egoera honek eskatzen duen neurriko erantzuna ematen jakin behar dute eta mobilizazioen buru izan».

STEE-EILAS •

«Atentatu honekin ETak frustrazioa eragin du eta oztopo bihurtu da»

► «Atentatua deitoratu eta gaitzesten dugu eta Eusko Legebiltzarreko kide baten aurkakoa izateak larritasun bikoitza ematen diola deritzogu. ETak frustrazioa eragin du gizartearen eta oztopo bihurtu da baketzerako eta euskal gatazkari irtenbidea emateko, Madril eta Parisko gobernuen joko itxi eta zekenari jarraituz».